

# SARTRE ETA GU

## TXILLARDEGI

«Sartre hire bizieran edo hire pentsakeran zer izan den laburki azaltzea eskertuko niake». Hori izan da eskaera. Eta erantzuna, bestetan ere emana, hauxe da: «**Nik bi maisu izan dizkiat neure bizitzan barrena: Russell eta Sartre. Aitor bakar bat egin behar honi buruz: zoritxarrez, ez ditudala nahi bezain sakonki ezagutzen, ez bata eta ez bestea**». Oker ez banago, nire garaikide askok egingo luke aitor bera.

Sartre buruz, beraz, ideia batzu azpimarratuko ditut. Baina ideia horiek, ahalean, «girotuta» emango ditut; nahiz, zorigaitzez, frankismoaren biktima izan garenok, gero eta nabarmenkiago, «des gens d'un autre âge» bihurtzen hasiak bagara ere.

Onar bekigu lekukotasuna, bederen.

### Existenzialismoaren aita-santua

Mundu-gerratearen ondoan, 1945-1950 inguruan, eta haurtzarotik irteten ginen urte haietan, ideien blokaera osoa zen Euskal Herrian; Hego-Euskal Herrian hobeki esateko, Iparraldean «ghe-tto» mailan bederen, euskal arazoaz eta kultur joera nagusiez hitz egitea posible baitzen.

Donostian eta Bilbon, berriz, ezer ez genekien ezertaz; uste hori genuen bederen.

Eta «Europar gairi» existenzialismoa nagusi zebilela jakin genuen. Hitz erdika, jakina. Unamuno, bestalde, ideia berrioinantzindari gisa agertzen zen: Kierkegaard, Marcel, Unamuno, «kristau existenzialistak» ziren; Sartre, berriz, «jainkogabeko existenzialista». Camus ere, hor nonbait, omen. Eta horrela, erdi isilpean, Saint Germain des Près-eko ideiekin egin genuen topo: munduak ez du sentidurik, gizona heriotzarako izakia da funtsez, eta antzekoak. Sartreren filosofia sakontzen saiatu ginen: «en-soi» eta «pour-soi» delakoak kakoa omen ziren, baita Jainkoa ezinezkoa dela ulertzeko ere. Ez genuen (ez nuen nik, behintzat) gauza handirik ulertu. Baina Sartre gudan sartu zen: «heriotza ez da erreala, besteentzat baizik».

Egiazkotasuna bilatu behar zen. Hau behintzat. Itxuren gezurra utzi behar, osotara. Giza patua tragikoa da; baina egiazki eta jator jokatzek ematen dio bere maila. Honelako zerbait atera genuen garbitan. Eta bai geure bizimodu pertsonalean, bai Euskal Herriari buruz, gertatu garenaren arauera jokatzek erabaki genuen. Garai hartakoak dira bai «**Leturiaren egunkari ezkutu**», bai «**Ekin**» taldea. Existenzialismoarekin abiatu ginen gu, ez dago dudarik; eta **oso gaizki ezagututa ere**, Sartre genuen gidari. Nahita azpimarratu ditut lau hitz horiek. Alde batetik, filosofoak ez ginelako; eta, bestetik, Sartre guztiz debekaturik zegoen autorea zelako: frankismoak hamabost urte zituen garai hartan; eta «kanpoan» PNVak zeukan aparatua eta politikabidea (itxaron dezagun, Franco berehala eroriko da, etab) orduantxe zaharrakutzen ziren gure begien aurrean.

### Sartre Frantziatik ezagututa

1961eko Urtarrilaren leian («Urte berri, bizi berri») Dantxariara joan, eta Iparraldera; eta handik, 31 urte eta hiru seme-alaba nituelarik, Parisa. Ez neraman nik, egia esan, Sartreren filosofia bereziki sakontzeko asmorik... Bazegoen besterik!

Parisa iritsi, ordea, eta orduantxe hasi zen gora OAS famatua. Arjeliako gerratea zen; eta ondorioak, gero eta nabarmenkiago, Parisaino heltzen ziren. Iñaki Larrañagarekin neukan afaria nik Debré-k irratiz dei etsi hura bota zuen egunean («**les putschistes arrivent; il faut aller aux aéroports, et les empêcher de rentrer!**»)... Saint Germain des Près-eko pisu batean afaltzen ari ginen. Irten ginenean tankeak ikusi genituen Asamblearen aurrean, eta Champs-Élysées-etan jendetza gaitza, banatzen ziren armak jasotzen ari... Fazismoa bide zetorren Frantziara; ta gu paperik batere gabe geunden oraindik...

Kontzientziaren ahotsa bihurtua bide zen jadanik Sartre. Behin eta berriz Arjeliaren **independentziaren** alde mintzatua eta manifestatua, eskuindarren etsai nagusia zen. Frantziako Armadaren kontra 1958az geroztik ausarki plantatua, arjeliarren torturaren arazoaz behin eta berriz bere Armadaren kontra jarria, Sar-

tre zen gure erreferentzia; arjeliarren alde gu egotea, guztiz automatikoa eta zinezkoa zelarik. «**La France une et indivisible de Dunkerque à Tammanrasset**»... Zenbat aldiz ez genuen ok egiteko gogoia senditu?

Orduan ere sortu zen gugan, nigan bederen, PC-rekiko mesfidantza: Frainziako PCak gogoz salatzen zituen arjeliarrek jasaten zituzten ekonomi-zapalketak, edo Borgeaud eta gainerako kolonoen lapurretak; hori bai. Baina arjeliar naziotasunaz? Uzkur eta uzkur.

Sartrek ez. Haseratik beretik hautatu zuen bere alderdia: arjeliarrek **nazio-askatasuna** lortzeko eskubidea zuten, eta **FLN-a lagundu** behar zen; baita Arjeliara joan nahi ez zuten **deserto-reak** (frantsesak, jakina) **bultzatu**. Hori bakarrik ez: posizio horiek hartzen ez zituen frantses sasi-ekerra «saldua» zen Sartren ustez, eta irainak besterik ez zuten jasotzen: «La Gauche Respectueuse»... Errespetua bai Armadari, kolonialistei, kapitalistei, torturari: horra hor «ezker» horrek zer errespetatzen zuen...

Ondorioak ez ziren luzatu. «Europaren ehorzle» eta «gazteriarren hondatzaile» behin eta berriz salatu ondoren, bestetara pasa ziren; eta 1961eko Uztailaren 19an, euskaldunok hemen sekulako jende harrapaketa betean geundelarik (ETAren tren famatu hura zela-ta), plastikatu egin zuten Sartreren etxea lehenengo aldiz. Handik bost hilabetetara bigarren atentatua, ondoriorik gabe; eta berriro ere Bonaparte kaleko bere pisuan, Saint Germain des Près auzoan. Eta, berandu baino lehenago, etxetz aldatzeko eskatu zioten Sartreri. OASak ez baitzion barkatzen.

## Sartre Nobel-sari

Sartre gugan zegoen osotara.

Nobel-saria eman zioten 1964an. Jasoko ote zuen zurrumurrua zabaldu zen bazterretan, eta Sartrek garbiki esan zuen: ez nuke onartuko. Eman egin zioten, halere. Eta orduan ukoa etorri zen: «**Sari hori onartuko banu, Mendebaldeak bilduko ninduke; eta ez nago horretarako prest**». Berriro ere eskandalo gaitza. Aldekoak mirespenez beterik; kontrakoak, berriz, nardaturik: «**Diruz beterik dago zerri hori; eta horregatik errefusatu du**».

Sartre, halaz ere, gaizki moldatzen zen komunista ofizialekin, eta Frainziako PCkoekin bereziki. Oportunismorik ez zegoen, beraz, jokabide horietan. Baina Sartrek anti-kolonialismoaren, anti-imperialismoaren, eta langileriarren alderdia hautatua zuen. Eta puntu nagusi horretan ez zen inoiz mogitu: **Biafrako genozidioaren aurrean, garrazki salatu zuen nagusitzen ari zen «gangsterismo politikoa»**. Txekoslovakia okupazioa salatu zuen, era berean, hasieratik bereitik; URSS-eko juduen alde mintzatu zen behin eta berriz; eta Padilla poetaren kasoan, bi eskutitz gogor bidali zizkion Castrori, hausi ere arte. Marxismoa «desestalinizatzea»: horra hor Sartren tema iraunkorra. «**Sozialismoari, bai; baina NKVD eta eritegi psikiatrikorik gabe**». Eskuindarrekin bat, inolaz ere ez: «**Du moment que je dis la droite, pour moi ça veut dire les salauds**», argitzen zion behin P. Victor bere jarraitzaileari. Euskaratu beharrik ez dagoela uste dut.

«**Etengabeko eskandaloa**» izan zen horrela Sartre 30 urtez eskuindarrekin borroka gorrian, PC ofizialekin gaizki behin eta berriz, sozial-demokratekin beharbada inorekin baino okerrago... Eta Sartreren ekarpenak, bai filosofiaren, bai literaturaren alorrean, ahaztu ere egin ziren. Halaz ere, Sartrek Literatur Nobel irabazi baitzuen idazle gisa!



*Artean debekaturik zegoen «La cause du peuple» egunkaria saltzen. 1974. urtea.*



*Russel tribunalean, Estocolmon. 1967. urtea.*

## Russell-Tribunala

Beste Nobel batek deitu zuen orduan: Bertrand Russell matematikari eta filosofoak; eta hau proposatu: «**Viet-Nam-en amerikarrek egin dituzten sarraskiak juzkatuko dituen Tribunal bat antolatzeko asmoa dut; eta Lehendakaritzat zu jartzea pentsatu dut**». Epaikidetzat nor izango lukeen galdetu, eta horra zerrenda: Vladimir Dediđer jugoslaviar kondairalaria, Laurent Schwartz frantses matematikaria, Lelio Basso italiar jurista, Simone de Beauvoir idazlea, Isaac Deutscher britaindar idazlea, etabar. Sartreren baiezkua ez zen luzatu.



*Gisèle Halimik Burgoseko prozesuaz idatzitako liburua. Hor argitaratu zuen Sartrek LARRUnerako itzuli dugun sarrrera.*

Tribunal famatuak bi bilaldi izan zituen (Suezian lehenengoa, Dinamarkan bigarrena), sekulako istiluak jasan ondoren; eta amerikarrak sinbolikoki kondenatuak izan ziren. 1967an ginen. Hogei urte. Garai hartan, Russell eta Sartreri esker, bazegoen halako kontzientzi-tribunal bat; txiroek eta ahulek bazeukaten nora jo... Gobernuek, noski, bazekiten nor madarikatu... Baina Franco hor zegoen oraindik, tinko; eta ez dakit zenbat euskaldunek izan ote duen inoiz honen guztiaren berri.

1968ko Maiatza heldu zen orduan. Eta haseratik berriro, eta Pctik at eta kontra, baina ezker aldean, noiz sortuko zai zegoen indar hura, 1968ko ikasleen mugimenduan somatu zuen Sartrek. Honetan, dirudienez, nahasi egin zen: bai pertsoneri buruz (pentsa, besteak beste, Cohn Bendit edo P.H. Levi non dauden gaur), bai soziologi-indarrei buruz ere. Bruseleraino ere hurbildu zen Sartre 1968ko Maiatzean, hango Unibertsitatean, Parisko Sorbona bezala, ikasleek okupatua zenean. Eta hantxe entzun genuen Belgikan garai hartan bizi ginen euskaldun batzuk. Sozialismoa ezkertatu eta liberalizatu: horra hor begien aurrean, Sartreren iritziz, mamitzen ari zen fenomeno. Irakurleak erants beza bere irizpidea.

Sartreren ospea gora joan zen, erpinera hobe; eta eten gabe parte hartu behar izaten zuen mota guztietako ekintzetan. Osasunak, ikusmenak batez ere, ez zioten beti ongi erantzuten: 1970an Sartrek 65 urte zituen.

### Burgosko Epaiketa

Eta orduantxe gertatu zen Euskal Herrian Burgosko Auzia. Bere buruz definitu behar zuen filosofoak, gainerako kasu guztietan bezala. Eta Gisèle Halimi abokatuak Hitzaurre bat eskatu zion. Eta mementu hartan euskal abertzaletasunak behar zuen dokumentu bikaina («behar» esan dut; eta ongi dakit zertaz mintzo naizen) prestatu zuen Sartrek. Hitzaurrea frantsesez, euskaraz

eta espainolez argitara zuten segidan Enbatak eta ETak (berehala, hain zuzen, honen sigla erabiltzen zuten infiltratuek Sartreren beraren iritzia gaitzetsiz: «**phase maintenant périmée du mouvement**»...).

Garai hartan sozial-inperialistek beren tesia ezker abertzalearen barruan dextente zabaldua zutelarik («el problema nacional es sólo un epifenómeno transitorio, lo único que cuenta es la contradicción de clase, el campesino andaluz está tan explotado como el trabajador vasco, el problema vasco está frenado por el nacionalismo burgués, el movimiento revolucionario andaluz no está frenado por el nacionalismo burgués y será dominante en la izquierda radical futura, las ikastolas son burguesas, la lengua vasca es burguesa...»). bomba bat bezala erori zen gure artean Sartreren jarrera: «**Ce procès (Burgos) a troublé les consciences, en Espagne et hors d'Espagne, parce qu'il a révélé aux ignorants l'existence du FAIT NATIONAL BASQUE**». «Euskaldun abertzaleek batez ere Espainaren kontra egiten dute burruka»; eta «burges humanismoaren unibertsaltasun abstraktoaren aurka, euskal herriaren unibertsaltasun berezia kontrajartzen dute». Eta hau azaldu egiten zen: «**Espainiaren kontrako burruka; eta ez, beraz, espainiar herriaren kontra**». Sozial-inperialismoaren kontra berriro; beronen ustez eraso behar zena, «fazismoa» eta «burgesia» baitziren; baina ez Espainia...

Bete-beteen sozial-inperialisten kontra, PC-aren jokabidea salatzen zuen dokumentuan: «Le P.C. tient l'Euzkadi pour une simple dénomination géographique». «Le P.C. ne comprend pas —en dépit de quelques déclarations opportunistes en faveur de l'E.T.A. lors du procès de Burgos— que les actions qu'il propose ont des objectifs inadéquats et, du coup, sans portée». Eta hitz hauetaz bukatzen zuen, besteak beste: Euskal Herria bere «**nazio-independentiaren** alde borrokan ari den «**herri martiria**» da.

Hizkuntzaren aldeko borroka «cosa de frailes» gisa salatzen zen garaian («el revolucionario hace la revolución»), Sartrek ardatzean jarri zuen hizkuntzaren arazoa: «**kolonizatuarengan, bere hizkuntzaz mintzatzea ekintza iraultzailea da**»; gure herriaren kontra gertatzen ari zen «**benetako kultur genozidioa**» salatuz. «**Berriro euskara Euskadiren nazio-hizkuntza bihurtuko balitz, bere barne-egitura dela bide, antzinateko ondunak oro ekarriko lituzke berarekin, baita pentsatzeko eta senditzeko era berezia ere; eta oparo zabalduko litzateke orainaldiari eta geroari buruz. Euskal nortasuna nahi du espainiarrak berarekin batera desagerrera. Bizkaiko biztanle batentzat, hain zuzen, euskaraz hitz egitea da euskalduntzea**». Oraindik ere guztiz onartuak ez diren ideia hauek, garai hartan **erabat defentsiban** agertzen ziren ezker abertzalean. Eta Sartreren jarrera noraino istimatu genuen ez da sekula behar bezala konprenituko.

Sartrek, hitz batez, ezker abertzalearen helburuak onartzen zituen: «**Euskadiren kasuan, txanpon berberaren bi aurpegiak dira independentzia eta sozialismoa**»; eta «**kimikoki gardena eta soila litzatekeen klase-burruka desbideratzailerik gertatzen da**».

«**Sasi-ekerrak, jakinaren gainean edo beldurraz, berdindu, ezintasuna hautatu du**», esaten zuen Sartrek.

Urteak joan eta urteak jin, Sartreren testuek beren gaurkotararen guztia atxiki dute.

Guk bezain aisa ezagutu ez duten gazteek irakurriko al dute! Agian bai, zinez!